

Gizakiaren kezka

A. de Amezaga

"Goragalea"

Jean Paul Sartre

euskaratzailea: Monika Etxebarria

Elkar / Alberdania, 2004

1938. urtean Jean-Paul Sartrek (Paris, 1905-1980) *La nausée* kaleratu zuen. 2004.ean euskarazko itzulpena argitaratu dute, Monika Etxebarriaren (Bilbao, 1968) eskutik eta *Goragalea* izenarekin. Tesi-nobela bat da, nobelaren forma erabiltzen duena —*Les chemins de la liberté (Askatasunaren bideak)* lana bezala— ideia filosofikoak azaltzeko. Hasieratik, kontakizun erraz bat transmititzen zaigu itxuraz, baina errealitatean korapilotsua da, gizakia lez, atmosfera berezi batean bilakatuko delako. Obrak esperientzia pertsonal bat kontatzen du eta bertan ageri diren hausnarketa askok gaurkotasuna dute: gizakiak gizaki izaten jarraitzen du, ekintza berak egiten. Narratzailea protagonista izango da eta existentzia ilun baten berri emango digu. Literatura Unibertsala bilduma ezagunaren 109. tituluaren aurrean gaude, orain hilabete batzuk Alberdania eta Elkar argitaletxeen eskutik kaleratzen hasi zena, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren laguntzarekin. Monika Etxebarriak Nafarroako Itzulpen Zerbitzuan lan egiten du eta *Goragalea*arekin estreinatu da, itzulpengintzaren arloan. Bere ustez, Sartrek jolastu egin zuen lan hau idaztean, gaineratuz filosofo frantsesarentzat "bat ziren pentsatzea, liburuak idaztea eta konpromisoa". Antiburgesa, iraultzaile argia, konpromisoaren bidetik gidatu zen. Hor dugu 68ko maiatza, adibide gisa. Sartreren filosofia hobeto ezagutzeko, nahiz eta bere lehenetariko liburua izan, berak existentzialismoaren inguruan planteatzen zuen ideologia ulertzeko lana.

Bilbao, 2004-06